



TOLOSAKO
UDALA

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

ae341929b8d3395c98e85c6607097d33d3dcc364e2ec00df376e02bc368024ec

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2020KO URRIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

2020.10.29

Tolosako Udaletxean, 2020ko urriaren hogeita bederatzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendiola (EAJ-PNV)
Nerea Letamendi Belloso (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EBILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EBILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EBILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EBILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EBILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EBILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EBILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Parte hartu ez duen zinegotzia:

Olatz Artola Apezteguia (EBILDU)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

Eguneko gai-zerrenda

1. Ondorengo aktak onartzea:
2020ko uztailaren 30ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2020ko irailaren 24ko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
2. Hasierako onarpena ematea 2021eko egutegi fiskaleko aldaketa honi: Zergak eta zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko Ordenantza Orokorren aldaketa.
3. Hasierako onarpena ematea aldaketa honi: 2020ko Dirulaguntzen eranskinaren 3/2020 aldaketa.
4. Hasierako onarpena ematea erregelamendu honi: COVID-19aren ondoriozko konfinamendu-kasuetan, osoko bilkuretan eta gainontzeko organo kolegiatuetan tokiko ordezkarien parte-hartze telematikoa ahalbidetzeko erregelamendua.
5. Behin betiko onespina ematea Tolosako ondasun babestuen hirigintza katalogoaren aldaketari.
6. Onartzea osasun krisian ostalaritzako jardueri lotutako terrazen azalerak handitzeko baldintzak ezartzen dituen 2020/740 Alkatetza Dekretua berrestea eta haren eragina luzatzea.
7. Kreditu aldaketa hauen berri ematea:
 - 2020/1625 Alkatetza Dekretua, 9/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona.
 - 2020/1626 Alkatetza Dekretua, 10/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona.
 - 2020/1627 Alkatetza Dekretua, 11/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona.
8. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2020ko irailaren 1etik 30era (2020/1351.-2020/1541).
9. Tolosako EHBILDUK aurkezten duen mozioa, udal foru funtsa eta zorpetzearen inguruan.
10. Galderak eta eskaerak.

Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, Udaltzazak, aho batez onartu ondoren, honako gai hauek aztertu dituzte:

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

- Berrestea 2020ko urriaren 27an, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioa: Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia.
- Mozioa: Euskaraldia 2020
- PSE-EEK aurkeztutako mozioa: Udal Finantzaketarako Foru Funtzari eta zorpetzeari buruzkoa.

Idazkariak adierazi du Osoko Bilkura era telematikoa egingo dela, zoom bidez, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean oinarrituz: «3. En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.

A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.».

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, udal idazkariak honako eginbide hauek egin ditu:

Lehenik.- Batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarren.- Fisikoki ez dagoen batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Irizpenen bozketa banan-banan egingo da, eta batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.

Eta bukatzeko, batzarkideek, aho batez, berretsi dute Osoko Bilkura era erdi presentzialean egitea.

Ondoren, batzarkideak bilkurako gai-zerrenda aztertzen hasi dira.

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. ONDORENGO AKTAK ONARTZEA:

2020KO UZTAILAREN 30KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

2020KO IRAILAREN 24KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).

Izenburuan aipatutako bi aktak aho batez onartu dituzte.

BATZORDE INFORMATIBOEN IRIZPENAK

2. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2021EKO EGUTEGI FISKALEKO ALDAKETA HONI: ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTELAKO SARRERAK KUDEATZEKO ETA BILTZEKO ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Batzordearen 2020ko urriaren 21eko irizpena.

COVID-19ak sortu duen osasun-krisiak egutegi fiskalean hainbat aldaketa egin beharra ekarri du, besteak beste, 2020ko borondatezko ordainketa epe batzuk atzeratzea, kasu hauetan, adibidez: ibilgailuen zergan, ondasun higiezin zergan, zaborren tasan...

2021erako proposatzen da Ordenantza Orokorraren I. eranskina, Egutegi Fiskalari dagokiona, aldatzea, eta COVID-19aren aurreko borondatezko ordainketa-epeetara bueltatzea, kasu hauetan izan ezik:

- Terrazen kasuan, eskaera berrien kudeaketa egokiago bat egiteko komenigarria ikusten da ordainketa epea, ekainak 1 – uztailak 7 izatetik, urriak 1 – azaroak 10 izatera pasatzea.
- Belena patioko tasa urtean bitan likidatzen da, sei hilean behin: ekainaren 1etik uztailaren 7ra eta abenduaren 1etik abenduaren 15era. Datu horiek egutegi fiskalean sartzea proposatzen da.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Aitana Amondarain Eskisabal, Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu dute.



TOLOSAKO
UDALA

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko Ordenantza Orokorren I. eranskinaren aldaketei.

I. eranskina honela geldituko litzateke:

I. ERANSKINA

1.1 Orokorrean, urtean behin ordaintzen diren zergen epeak honako hauek dira:

Con carácter general, se establece que los periodos para pagar los diferentes tributos de carácter periódico sean los siguientes :

KONTZEPTUA CONCEPTO	ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA PLAZO DE PAGO VOLUNTARIO	HELBIDERATUTAKO ERREZIBOAK COBRO DE RECIBOS DOMICILIADOS
Urtean behin ordaintzen diren zergak 2. <u>Tributos de periodicidad anual</u> - Ibilgailuen zerga - <i>Impuesto sobre vehículos</i> - Ondasun higiezin zerga - <i>Impuesto sobre Bienes Inmuebles</i> - Jarduera ekonomiko zerga - <i>Impuesto s/ Actividades Económicas</i> - Zaborren tasa . - <i>Tasa de Basuras</i> - Ibilgailuen sarbide eta pasabideen tasa - <i>Tasa de entrada vehículos y vados</i> - Kutxazain automatikoen tasa - Tasa de cajero automático - Autotaxia - Terraza	Martxoak 1 – Aprilak 15 1 de marzo – 15 de abril Maiatzak 15 – Ekainak 30 15 de mayo – 30 de junio Urriak 1 – Azaroak 10 1 de octubre – 10 de noviembre Tarifa finkoa: Ekainak 1 – Uztailak 7 1 de junio – 7 de julio Ekainak 1 – Uztailak 7 1 de junio – 7 de julio Urriak 1 – Azaroak 10 1 de octubre – 10 de noviembre	Borondatezko epearen azken egunean • Último día del periodo voluntario Borondatezko epearen azken egunean • Último día del periodo voluntario Borondatezko epearen azken egunean • Último día del periodo voluntario Borondatezko epearen azken egunean • Último día del periodo voluntario Borondatezko epearen azken egunean • Último día del periodo voluntario Borondatezko epearen azken egunean Último día del periodo voluntario Borondatezko epearen azken egunean • Último día del periodo voluntario

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

KONTZEPTUA CONCEPTO	ALDIA PERIODO	ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA PLAZO DE PAGO VOLUNTARIO	HELBIDERATUTAKO ERREZIBOAK COBRO DE RECIBOS DOMICILIADOS
Hilean behin ordaintzen diren zergak 3. <u>Tributos de periodicidad mensual</u> - Etxez etxeko laguntza - <i>Asistencia domiciliaria</i> Sei hilean behin ordaintzen diren tasak: <u>Tasas de periodicidad semestral:</u> - Belena patioa	Hilean behin 4. <i>Mensual</i> Sei hilean behin Semestral	Hurrengo hileko 2. astea 2ª semana del mes siguiente Ekainak 1 – Uztailak 7 1 de junio – 7 de julio Abenduak 1- abenduak 15 1 de diciembre- 15 de diciembre	Borondatezko epearen azken egunean 5. <i>Último día del periodo voluntario</i> Borondatezko epearen azken egunean <i>Último día del periodo voluntario</i>

1.2. Ordaintzeko borondatezko epearen azken eguna edo ordainketa helbideratuta egiteko eguna baliogabea izanez gero, hurrengo egun baliodunera luzatuko da.
Aparteko gorabeherarik izanez gero, alkateak borondatezko epealdian ordaintzeko epea luza dezake.

1.2. En el caso de que el último día del periodo voluntario o el día de cobro por domiciliación sea inhábil se trasladará dicha fecha al siguiente día hábil
Por circunstancias extraordinarias la Alcaldía podrá ampliar el plazo de pago en periodo voluntario.

1.3. Salbuespen eta hobari hauek eskatzeko epeak honako hauek dira:

1.3. Se establecen los plazos de solicitud de las siguientes exenciones y bonificaciones:

KONTZEPTUA CONCEPTO	ESKAERA EPEA PLAZO DE SOLICITUD
Ondasun higiezin zerga. Familia ugariaren hobaria <i>Impuesto Bienes Inmuebles. Bonificación familias numerosas</i> Ibilgailuen zerga. <i>Impuesto de vehículos</i> Ibilgailu historikoen hobaria <i>Bonificación vehículos históricos</i> Motor elektrikoa duten ibilgailuen hobaria <i>Bonificación vehículos de motor eléctrico.</i> Famili ugarien hobaria <i>Bonificación familias numerosas</i> Ibilgailu hibridoaren hobaria <i>Bonificación vehículos híbridos</i> Hondakinen bilketaren tasa. Hobariak. <i>Tasa de recogida de basuras. Bonificaciones</i>	Urtarrilak 1- Otsailak 15 1 de enero - 15 de febrero

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko dute, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamaziorik edo alegaziorik ez badago epe barruan, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat hartuko dute.

HIRUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin-behinekoak barne direla, eta Ordenantzaren edo haren aldaketaren testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean sartuko argitaratu arte.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpenera ematea 2021eko egutegi fiskaleko aldaketa honi: zergak eta zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantza orokorraren aldaketa.

3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA ALDAKETA HONI: 2020KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN 3/2020 ALDAKETA.

Antolakuntza Batzordearen 2020ko urriaren 21eko irizpena.

2020ko dirulaguntzen eranskinean, aldaketa hauek sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna IZENA	Helburua	Behin betiko aurrekontua 2020	Mota
1100.422.01.430.10	TOLOSALDEA GARATZEN	Funtzionamendu gastuak, kudeaketa plana	1.000,00	izenduna
0500.480.01.231.40	FAMILIAK	Gizarte larrialditako laguntzak	-19.026,00	legea/akordioa
0800.481.01.334.10	ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KONPARTSA	Urteurrena	-10.000,00	izenduna
0800.481.01.338.00	AMARROZKO AUZO ELKARTEA	Auzoetako festa eta jarduerak	-278,00	izenduna
0800.481.01.338.00	SAN ESTEBANGO TONTOR AUZOKIDE ELKARTEA	Auzoetako festa eta jarduerak	-3.000,00	izenduna
0800.481.01.338.00	ASOC.SOCIO CULTURAL BERAZUBI	Auzoetako festa eta jarduerak	-1.365,00	izenduna
0800.481.01.338.00	OLARRAINGO LAGUN ARTEA AUZO ELKARTEA	Auzoetako festa eta jarduerak	-1.357,00	izenduna
0800.481.01.338.00	OTSABI AUZO ELKARTEA	Izaskungo festak antolatzeke	-4.000,00	izenduna
0800.481.01.338.00	LARRAMENDI BIZIRIK AUZO ELKARTEA	Auzoetako festa eta jarduerak	-3.000,00	izenduna
0800.481.01.338.00	JESUS PRADOS BENITO	Alliri Auzoetako festa eta jarduerak	-1.000,00	izenduna
0800.481.01.338.00	IURREAMENDI	Auzoetako festa eta jarduerak	-1.000,00	izenduna
1100.771.01.430.00	ENPRESAK	Dirulaguntzak. Covid-19	95.707,00	izendunak



TOLOSAKO
UDALA

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Aitana Amondarain Eskisabal, Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu dute.

Hori dela eta hau, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehenen.- Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskinaren aldaketei, eta aldatutako dirulaguntza horiek honela uztea:

Partida	Onuraduna IZENA	Helburua	Behin betiko aurrekontua 2020	Mota
1100.422.01.430.10	TOLOSALDEA GARATZEN	Funtzionamendu gastuak, kudeaketa plana	158.000,00	izenduna
0500.480.01.231.40	FAMILIAK	Gizarte larrialditako laguntzak	247.520,00	legea/akordioa
0800.481.01.334.10	ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KONPARTSA	Urteurrena	0,00	izenduna
0800.481.01.338.00	AMAROKO AUZO ELKARTEA	Auzoetako festa eta jarduerak	28.022,00	izenduna
0800.481.01.338.00	SAN ESTEBANGO TONTOR AUZOKIDE ELKARTEA	Auzoetako festa eta jarduerak	2.477,00	izenduna
0800.481.01.338.00	ASOC.SOCIO CULTURAL BERAZUBI	Auzoetako festa eta jarduerak	10.135,00	izenduna
0800.481.01.338.00	OLARRAINGO LAGUN ARTEA AUZO ELKARTEA	Auzoetako festa eta jarduerak	0,00	izenduna
0800.481.01.338.00	OTSABI AUZO ELKARTEA	Izaskungo festak antolatzeke	425,00	izenduna
0800.481.01.338.00	LARRAMENDI BIZIRIK AUZO ELKARTEA	Auzoetako festa eta jarduerak	2.500,00	izenduna
0800.481.01.338.00	JESUS PRADOS BENITO	Alliri Auzoetako festa eta jarduerak	0,00	izenduna
0800.481.01.338.00	IURREAMENDI	Auzoetako festa eta jarduerak	0,00	izenduna
1100.771.01.430.00	ENPRESAK	Dirulaguntzak. Covid-19	120.707,00	izendunak

Bigarrenen.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2020ko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko dute, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamaziorik edo alegaziorik ez badago epe barruan, aldaketa hori behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea 2020ko



TOLOSAKO
UDALA

dirulaguntzen eranskinaren 3/2020 aldaketari.

4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA ERREGELAMENDU HONI: COVID-19AREN ONDORIOZKO KONFINAMENDU-KASUETAN, OSOKO BILKURETAN ETA GAINONTZEKO ORGANO KOLEGIATUETAN TOKIKO ORDEZKARIEN PARTE-HARTZE TELEMATIKOA AHALBIDETZEKO ERREGELAMENDUA.

Antolakuntza Batzordearen 2020ko urriaren 21eko irizpena.

AURREKARIAK

SARS-CoV-2 birusak sortutako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialak erronka bat ekarri die udal guztiei. Pandemia iritsi arte, udalen funtzionamendu-araubidean, osoko bilkurak presentzialak izan dira, beste aukera malguago batzuen aurrean, hala nola Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak kide anitzeko organoei buruz ezarritako erregulazioa. Horretaz gain, teknologiaren garapenak eta familia- eta, pertsona- kontziliazioak botoaren delegazioa bideratu dute hainbat kasutan. Horrela, 2/2016 Legeak, apirilaren 2koak, Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituenak, 25.6 artikuluan, korporazioko kideen botoaren delegazioa ahalbidetzen du, amatasunagatik edo aitatasunagatik.

Era guztietan, COVID-19 pandemiaren ondoren, beharrezkoa izan da berriro aztertzea ukiezinak ziruditen gai horiek guztiak, orain arte toki-ordezkarien presentzia eta ordezkarien arteko interakzioa, debatea eta eztabaida bermatuko zukeen prozedura baten bidez, udalbatzaren osoko bilkuraren borondatea eratzeke funtsezko elementutzat jo izan dituztenak.

Horrela, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 31koak, Bigarren Azken Xedapenean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/2985 Legearen 46. artikuluan xedapen berri bat sartu zuen, era telematikoko osoko bilkurak ahalbidetzeko: «3. *En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.*

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten».

Hala ere, aldaketa hori ez da nahikoa tokiko ordezkariak pandemia-garai hauetan politikan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko. Zehazki, indarrean dagoen araudiak ez du bermatzen medikuak aginduta etxean konfinatuta dauden zinegotziek osoko bilkuretan parte hartzeko duten eskubidea, dela egindako probetan positibo eman dutelako, dela probak egiteko zain daudelako, edo, nolanahi ere, isolatuta egon behar dutelako osasun-agintaritzak horretarako ezartzen duen konfinamendu-aldian.

Kode Zibilaren 3. artikulua ezartzen duenez, "Araua interpretatzeko, aurrekari historikoak eta legegintzakoak eta aplikatu behar diren garaiko errealitate soziala hartu behar dira kontuan, batez ere haien espiritua eta helburua kontuan hartuta". Ildo horretan, Udalbatzari proposatzen zaio xedapen bat onar dezala osoko bilkuretara bide telematikoz joatea ahalbidetzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea eta Euskadiko toki Erakundeei buruzko Legea malguago interpretatzeko, lege horiek ezartzen baitute beharrezkoa dela osoko bilkurara fisikoki joatea.

Arau-proposamen honek egokitu egin nahi du teknologia berrien erabilera ezohiko egoera honek eragindako beharrian berrietara, egoera horrek eragotzi egiten duelako aipatu diren kasuetan zinegotzien parte hartzea udal osoko bilkuretan.

Tolosako Udalak ez duenez udal erregelamendu organikorik, osoko bilkuraren erabaki arauemailea hartu behar da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 1.a) atalean ezarritakoaren arabera:

Lehenengoa.– Tokiko araugintza-ahala.

1.– Toki-erakundeei emandako arauak era honetakoak izango dira:

a) Erregelamenduak: Udalbatzak onartutako xedapen orokorrak, toki-erakundearen antolaketa eta funtzionamendua, eta zerbitzu publikoen prestazioa arautzen dutenak.

Gaur egungo egoera dela-eta alarma-egoera edo osasun-alarma deklaratu behar izan ez bada ere, osasun-agintaritzak pandemia geldiarazteko pertsonak konfinatzeko emandako betebeharrak eragin larria izan dezakete parte-hartze politiko horrek funtsezko bidea duen organoen funtzionamenduan. Horri guztiari ziurgabetasun-egoera gehitu behar zaio, gaixotasunaren hedapena saihesteko bitarteko eraginkorrak izan arte.

Azaldutakoagatik guztiagatik, honako proposamen hau egiten da, osasun-agintaritzak aginduta konfinamendu-egoeran dauden korporazioko kideek osoko bilkuretan, informazio-batzordeetan eta tokiko gobernu-batzarrean telematikoki eta elektronikoki parte hartzea ahalbidetzeko.

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

ARAU BIDE JURIDIKO APLIKAGARRIA

Irizpen honen aurrekarietan aipatu den moduan, Proposamen honen helburu nagusia da korporazioko kideek politikan parte hartzeko duten eskubidea bermatzea, indarrean dagoen Konstituzioaren 23.1 artikuluan xedatutakoa betez: *Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzen-zuzenean nahiz ordezkari bidez; ordezkariok askatasunez aukeratuko dira sufragio unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan.*

Bestalde, kontuan hartu behar da 11/2020 Errege-Lege Dekretuak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea aldatu badu, osoko bilkura telematikoak deitzea ahalbidetuz, osoko bilkura erdipresentzialak ere deitu ahal izango direla, korporazioko kide batzuen bertaratzea eta beste batzuen bertaratze telematikoak konbinatuz. Udal idazkariaren iritziz, parte-hartze politikorako eskubide konstituzionalaren defentsa nagusitu behar da, betiere bilera egiteko aukeratutako baliabideak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 46.3 artikuluan xedaturikoa betetzen badute.

Parte-hartze telematikoak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Eskubide hau izango dute osasun-agintaritzak aginduta konfinamendu-egoeran dauden korporazioko kideek. Beraz, egikaritu aurretik, osasun zerbitzuek emandako agiria aurkeztu beharko dute Udaleko Erregistro elektronikoan.
- Parte-hartze elektronikoak bermatu beharko ditu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 46.3 artikuluan xedaturiko baldintzak:
 - Parte-hartzaileak egiaztatu beharko ditu bere identitatea, eta estatuko lurraldean dagoela.
 - Saioan zehar komunikazioa denbora errealean bermatu beharko da.
 - Bermatu beharko da zinegotziaren esku-hartzeak dagokion bilkuraren aktan (elektronikoan edo bestelakoan) sartuko direla.
 - Zinegotziak berariaz, argi eta garbi eta erraz ezagutzeko moduan adierazi beharko du bere botoaren esanahia.
 - Bozketa egin ondoren, idazkariak azalduko du bozketaren emaitza.

Azkenik, eta hemen zerrendatzen diren gaien garrantzia kontuan hartuta, distantziaz parte hartzeko aukeratik kanpo geratzen dira:

- a) Toki-erakundea eratzeke osoko bilkura.
- b) Toki-erakundeko alkatea eta lehendakaria hautatzea.
- c) Zentsura-mozioa.
- d) Konfiantza-arazoa.

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

Erregelamendu hau onartzeko ezarritako Prozedura, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan jasotakoa da:

- A) Osoko bilkurak hasierako onarpena ematea.
- B) Jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, gutxienez hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
- C) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta osoko bilkurak behin betiko onartzea. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko da.

Erregelamendua onartzeko organo eskuduna Udalbatzaren Osoko Bilkura da, goian aipaturiko Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera. Erabaki honek korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutua behar du, Lege horren 47.2.f) atalean xedatutakoaren arabera.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2020ko urriaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Tellería.

Abstentzioak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Aitana Amondarain Eskisabel.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea, COVID-19aren ondoriozko konfinamendu-kasuetan, osoko bilkuretan eta gainontzeko organo kolegiatuetan tokiko ordezkarien parte-hartze telematikoa ahalbidetzeko erregelamenduari, honako testu honen arabera:

1. artikulua.- Osasun-agintaritzak ezarritako konfinamendu-egoeran dauden korporazioko kideek telematikoki eta elektronikoki parte hartzeko eskubidea izango dute osoko bilkuretan, informazio-batzordeetan eta tokiko gobernu batzarrean.

2. artikulua.- Tolosako Udalak beharrezkoak diren baliabide teknologikoak bermatuko ditu eskubide hori gauzatu ahal izateko.

3. artikulua.- COVID-19aren ondoriozko konfinamendu-neurri baten eraginpean dagoen korporazioko kideak dagokion saioan telematikoki parte hartzea eskatu beharko du, behar den aurrerapenarekin, Tolosako Udalaren sarrera-erregistro elektronikoen bidez. Eskaerarekin batera, osasun zerbitzuek emandako agiria aurkeztu beharko du. Eskaera

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatza zein batzordea gauzatzea ahalbidetuko duen behar besteko aurrerapenarekin egin beharko da, Udaleko zerbitzu teknikoek zinegotziaren parte-hartzea ahalbidetuko duten baliabide teknologikoak instalatu ahal izan ditzaten.

4. artikulua.- Parte-hartze elektronikoak bermatu beharko ditu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 46.3 artikuluan xedaturiko baldintzak:

- Parte-hartzaileak egiaztatu beharko ditu bere identitatea, eta estatuko lurraldean dagoela.
- Saioan zehar komunikazioa denbora errealean bermatu beharko da.
- Bermatu beharko da zinegotziaren esku-hartzeak dagokion bilkuraren aktan (elektronikoan edo bestelakoan) sartuko direla.
- Zinegotziak berariaz, argi eta garbi eta erraz ezagutzeko moduan adierazi beharko du bere botoaren esanahia.
- Bozketa egin ondoren, bilkurako idazkariak azalduko du bozketaren emaitza.

5. artikulua.- Zerrenda honetako gaien garrantzia kontuan hartuta, distantziaz parte hartzeko aukeratik kanpo geratzen dira:

- a) Toki-erakundea eratzeke osoko bilkura.
- b) Toki-erakundeko alkatea eta lehendakaria hautatzea.
- c) Zentsura-mozioa.
- d) Konfiantza-arazoa.

6. artikulua.- Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Xedapen Iragankorra: hasierako onespina eman ondoren, kide anitzeko organoak gehiengoz ikusten badu xedapen hau aplikatzeko premia larria dagoela eta ordura arte ez bada horren aurkako oharrik edo alegaziorik egin, erregelamendu honetan xedaturikoa aplikatu ahal izango da.

BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, hogeita hamar lanegunez, interesdunek aztertu eta, hala badagokio, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Informazio- eta entzunaldi-epea amaitu ondoren, Udalbatzaren Ooko Bilkurak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu. Alegaziorik aurkezten ez bada, erregelamendua behin betiko onartutzat joko da.

LAUGARRENA.- Erabaki horiek Tolosako udal talde guztiei jakinaraztea.



TOLOSAKO
UDALA

BOSGARRENA.- Erabaki horiek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian, iragarki taulan eta Gardentasunaren atarian.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzio botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, udalbatzak gehiengo absolutuz **onartu** du hasierako onarpena ematea erregelamendu honi: covid-19aren ondoriozko konfinamendu-kasuetan, osoko bilkuretan eta gainontzeko organo kolegiatuetan tokiko ordezkarien parte-hartze telematikoa ahalbidetzeko erregelamendua.

5. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA TOLOSAKO ONDASUN BABESTUEN HIRIGINTZA KATALOGOAREN ALDAKETARI.

Lurralde Batzordearen 2020ko urriaren 21eko irizpena.

AURREKARIAK

2019ko uztailaren 30ean, Juan Diego del Rey Canal jaunak, ADIF erakundearen ordezkari izan, hirigintza katalogoan jasotako **trenbide langilearen etxea** (52. zb) eta **telegrafo dorreari (30. zb.) erantsita dauden biltegiak** deskatalogatzeko eskaera egin zuen.

Honela, hasierako izapideak eginda, Udalbatzak, 2020ko martxoaren 5eko bilkuran, hasierako onespena eman zion Tolosako hirigintza katalogoa aldatzeko prozedurari, hain zuzen ere, honako haxe aldatuz katalogoan:

- *“Trenbide langilearen etxea” (52 zb.) katalogotik kentzea.*
- *“Telegrafos dorrea”ren (30 zb.) izena aldatzea, eta, haren orde, “Elektrifikazio etxea” deitzea. Katalogoan mantentzea proposatzen da, lehenengo babes mailarekin. Dena den, **eraikin honen alboko egitura gehigarria katalogotik kentzea proposatzen da.***

Behin betiko onespenerako honako baldintza hauek bete behar zituztela ezarri zen:



TOLOSAKO
UDALA

- a) *Eraispena egin baino lehen, **eraikinak dokumentatu** egin beharko dira (jasotze planimetrikoa, argazki erreportajea eta dokumentazio historikoa), eta dokumentatze-lan hori ondare kulturalaren gaietan aditua den teknikari batek izenpetu behar du.*
- b) *“Elektrifikazio etxea” deritzon alboko eraikinak ez direla kaltetuko ziurtatzen duen dokumentazio teknikoak aurkeztuko da, eskumena duen teknikari batek izenpetuta.*

Era berean, jendaurreko informazio aldiari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena eskatu zen. Txostena egin zuen erakunde horrek 2020ko ekainaren 19an eta ez du inolako eragozpenik ikusten katalogoan aldaketak egiteko.

Bestetik, jendaurrean ere jarri zen espedienteak, GAOan eta taulan iragarkiak jarrita, eta ez zen alegaziorik izan epealdi horretan.

AZTERKETA TEKNIKOA

2020ko uztailaren 29an, ADIFek behin betiko onespenerako dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

Udal arkitektoak txostena egin zuen 2020ko urriaren 14an, eta honako hau adierazi:

“Txosten honen helburua da aurkeztutako dokumentazioa aztertzea. Hain zuzen ere, deskatalogatuta geratuko diren eraikinen azterketa historikoa (jasotze planimetrikoa, argazki erreportajea eta dokumentazio historikoa).

Deskatalogazioaren hasierako onarpenaren irizpenean baldintza hauek ezarri ziren:

“BIGARRENA.- Behin betikoz onartzeko, jarraian adierazten den dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da:

a) Eraispena egin baino lehen, eraikinak dokumentatu egin beharko dira (jasotze planimetrikoa, argazki erreportajea eta dokumentazio historikoa), eta dokumentatze-lan hori ondare kulturalaren gaietan aditua den teknikari batek izenpetu behar du.

b) Elektrifikazio etxea deritzon alboko eraikinak ez direla kaltetuko ziurtatzen duen dokumentazio teknikoak aurkeztuko da, eskumena duen teknikari batek izenpetuta”.

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

Aurkeztutako dokumentazioan, eraitsi nahi diren eraikinak dokumentatu dira. Arkeologo batek sinatu du, eta bertan eraikinen jasotze planimetrikoa, argazki erreportajea eta dokumentazio historikoa aurki daitezke. Beraz, ontzat ematen da azterketa historiko hori.

Bestalde, elektrifikazio etxea deritzon alboko eraikinak ez direla kaltetuko ziurtatzeko, haxe proposatzen da:

1. Errekeritzea arkeologo akreditatu bat obran bertan egotea, gutxienez, eraiste lanek irauten duten bitartean, "Elektrifikazio etxea" deritzon alboko eraikinak ez direla kaltetuko ziurtatzeko.

2. Udalari jakinaraztea, obran zehar, ondarearekin zerikusia duen informazioa guztia (hartutako neurriak, gertaerak, intzidentziak eta abar)"

Beraz, prozedurak aurrera jarrai dezake.

ZUZENBIDE OINARRIAK

2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 100. artikuluan ezarritakoaren arabera, katalogoak onartzeko prozedura toki erakundearen ordenantzak onartzeko prozedura berbera izango da. Aipatu legeak ez du berariaz erregulatzen katalogoa aldatzeko prozedura, baina 100. artikulua era zabalean interpretatuz, ulertzen da udal ordenantzak aldatzeko prozedura berberari jarraitu behar zaiola.

Toki Erakundearen 7/1985 Oinarri Legearen 49. artikulua xedatzen du udal ordenantza izapidetzeko prozedura:

- 1) Udalbatzak hasierako onespina eman (2020ko martxoaren 5eko bilkuran eman zion).
- 2) Jendaurreko informazioa hogeita hamar (30) egunez, GAO-n argitaratuta eta iragarki taulan jarrita (egina).
- 3) Udalbatzak behin betiko onespina eman.

Aurrekariak eta txostenak kontuan izanik, haxe da egiten dudana

IRIZPENA

LEHENENGOA.- Behin betiko onespina ematea Tolosako Hirigintza Ondarearen Katalogoaren aldaketari. Aldaketak honako hauek dira:

- "Trenbide langilearen etxea" (52 zb.) katalogotik kentzen da.



TOLOSAKO
UDALA

- “Telegrafos dorrea”ren (30 zb.) izena aldatzea, eta, haren ordezt, “Elektrifikazio etxea” deitzea. Katalogoan mantentzea proposatzen da, lehenengo babes mailarekin. **Eraikin honen alboko egitura gehigarria katalogotik kentzen da.**

BIGARRENA.- Jakinaraztea baldintza hauek bete beharko direla obra gauzatzera:

- a) Arkeologo akreditatu batek egingo du obraren jarraipena gutxienez eraiste lanek irauten duten bitartean, “Elektrifikazio etxea” deritzon alboko eraikinak ez direla kaltetuko ziurtatzeko.
- b) Udalari jakinaraztea ondarearekin zerikusia duen edozein gorabehera, intzidentzia, hartutako neurri edota gertaera.

HIRUGARRENA.- Erabakia GAO-n argitaratzea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari berri ematea eta interesdunei jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du behin betiko onespina ematea Tolosako ondasun babestuen hirigintza katalogoaren aldaketari.

6. ONARTZEA OSASUN KRISIAN OSTALARITZAKO JARDUEREI LOTUTAKO TERRAZEN AZALERAK HANDITZEKO BALDINTZAK EZARTZEN DITUEN 2020/740 ALKATETZA DEKRETUA BERRESTEA ETA HAREN ERAGINA LUZATZEA.

Lurralde Batzordearen 2020ko urriaren 21eko irizpena.

AURREKARIAK

2020ko maiatzaren 28ko 2020/740 Alkatetza Dekretuaren bidez, alarma egoeran ostalaritzako jarduerari lotutako terrazen azalerak handitzeko baldintzak onartu ziren, SND/399/2020 Aginduak emandako neurrien ondoren.



TOLOSAKO
UDALA

Ebazpen haren 4. puntuan adierazten denez, ebazpenaren indarraldia urriaren 31 bitartekoa da.

Oro har, alkatetza dekretu horrek ezarri zituen osasun egoerak eskatutako hainbat irizpide tekniko: mahaien arteko distantziak, pertsonen pasabideak errespetatzeko distantziak eta espazio publikoen okupazio maila zaintzeko irizpideak.

Hala, helburua izan da, oro har, 2019an terraza baimena zuten establezimenduei azalera handiagoa erabiltzeko aukera ematea, urte horretan baimenduta zituzten mahai kopuruak mantentzeko.

Era berean, terraza baimenik ez zuten establezimenduentzat ere izapidetu dira baimenak.

Bestalde, ahalegin berezia egin da, inguratzen duten espazio publikoaren ezaugarriengatik terraza bat jartzeko zailtasuna zuten establezimenduei espazio publiko berriak bilatu eta horietan terraza-baimena emateko.

Azkenik, azpimarratu nahi da, baimenen izapidetzeak aztertuta, Alde Zaharrak tratamendu berezia merezi duela. Izan ere, hain justu eremu horretan, zailtasun berezia dute ostalaritza establezimenduek. Horregatik, salbuespenez, aukera zabaldu nahi da espazio horietan mahai gehiago jartzeko.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Alkatetza dekretua eman zenean, testuingurua SND/399/2020 Ministro Agindua ezarritakoa izan zen.

Aipatutako agindu hori indarrik gabe geratu zen alarma egoeraren amaierarekin.

Hala, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, lehendakariak 14/2020 Dekretua eman zuen, ekainaren 18koa, zeinaren bidez deklaritzen baita alarma egoeraren faseak gaindituta normaltasun berrian sartzen dela Euskal Autonomia Erkidegoa 2020ko ekainaren 19ko 00:00etatik aurrerako ondorioekin.

Osasun sailburuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharreko prebentzio-neurriak hartzeko agintea duenak, hainbat agindu eman ditu osasun egoerak dirauen bitarteko: 2020ko ekainaren 18ko Agindua, eta haren aldaketak uztailaren 28an, abuztuaren 7an eta, azkenik, abuztuaren 19an.

Hala ere, positibo kopuruaren gorakada kontuan izanik, azken egunotan komunikabideetan azaldu da agindu berri baten argitalpena. Neurri berri horiei kalterik egin gabe, ustea da terrazen aforoak ez direla murriztuko.



TOLOSAKO
UDALA

Aurrekariak kontuan izanik, hauxe da egiten dudana

IRIZPENA

LEHENENGOA.- 740/2020 Alkatetza Dekretua berrestea eta haren eraginak luzatzea 2021eko martxoaren 31 arte (l. eranskina: 740/2020 Alkatetza Dekretua).

BIGARRENA.- Interpretazio irizpide berri bat finkatzea, Alde Zaharrari aplikatuko zaiona soil-soilik, eta honako hau da: mahai gehiago jartzeko terraza-baimenak eman ahal izango dira plaza ez diren hondar-espazioetan, betiere dekretuan zehaztutako baldintza teknikoak eta espazioaren izaera publikoa bermatuta.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri ematea interesdunei eta herritarrei, horretarako egokiak diren baliabideak erabiliz, akordioak ahal den hedadura handiena izan dezan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du osasun krisian ostalaritzako jardueri lotutako terrazen azalerak handitzeko baldintzak ezartzen dituen 2020/740 alkatetza dekretua berrestea eta haren eragina luzatzea.

BERRI EMATEA

7. KREDITU ALDAKETA HAUEN BERRI EMATEA:

LURRALDE BATZORDEAREN 2020KO URRIAREN 21EKO IRIZPENA.

- **2020/1625 ALKATETZA DEKRETUA, 9/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.**

Begoña Tolosa Mendi, Ogasuneko zinegotzi delegatuak azalpenak eman ditu. 2020/1625 Alkatetzak dekretuak honela dio:



TOLOSAKO
UDALA

ALKATEAREN DEKRETUA

2020/1625

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2020-KALD-000009-00 zenbakiduna,

Ikusita, kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera, espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Eta Foru Arau horrek 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulu ak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	171.987,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	80.170,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	25.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK, GUZTIRA		278.157,00

FINANTZAKETA

Kapitulu ak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	278.157,00
GUZTIRA		278.157,00

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena.- Adieraztea, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta exekutiboa denez gero, bidezkoa dela Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri ematea Udalbatzari bere hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2020ko urriaren 9a

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

- **2020/1626 ALKATETZA DEKRETUA, 10/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.**

2020/1626 Alkatetzak dekretuak honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA
2020/1626

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana.

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000010-00 zenbakiduna.

Ikusita, jarduneko kontuhartzaileak idatzitako txostenaren eta ziurtagiriaren arabera, espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Eta Foru Arau horrek 31. artikuluen 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	82.520,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	70.707,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		153.227,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	82.520,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	70.707,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		153.227,00

Bigarrena.- Adieraztea, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta exekutiboa denez gero, bidezkoa dela Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri ematea Udalbatzari bere hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2020ko urriaren 9a

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

- **2020/1627 ALKATETZA DEKRETUA, 11/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.**

2020/1627 Alkatetzak dekretuak honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA 2020/1627

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana.

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2020-KALD-000011-00 zenbakiduna.



TOLOSAKO
UDALA

Ikusita, jarduneko kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera, espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Eta Foru Arau horrek 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA			
3	ZERBITZUETAN			
4	FINANTZA GASTUAK			
5	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	276.634,00	25.000,00	251.634,00
6	KREDITU GLOBALA			
7	INBERTSIO ERREALAK			
8	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
9	FINANTZA AKTIBOAK			
	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		276.634,00	25.000,00	251.634,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA	188.330,00	25.000,00	213.330,00
3	ZERBITZUETAN			
4	FINANTZA GASTUAK			
5	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
6	KREDITU GLOBALA			
7	INBERTSIO ERREALAK			
8	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
9	FINANTZA AKTIBOAK			
	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		188.330,00	25.000,00	213.330,00

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena.- Adieraztea, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta exekutiboa denez gero, bidezkoa dela Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri ematea Udalbatzari bere hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2020ko urriaren 9a

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

8. ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:
2020KO IRAILAREN 1ETIK 30ERA (2020/1351.-2020/1541).

Alkatetzak 2020ko irailaren 1etik 30era (2020/1351-2020/1541) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

9. TOLOSAKO EHBILDUK AURKEZTEN DUEN MOZIOA, UDAL FORU FUNTSA
ETA ZORPETZEAREN INGURUAN.

EHBILDU udal taldeak aurkeztu duen mozioak honela dio:

COVID19aren pandemiak sortutako krisiak gogor eragin du udalen egunerokotasunean, eta batez ere, udalek 2020rako eginiko aurreikuspenetan. Udalek beraien aurreikuspenak alde batera utzi eta beste lehentasun eta beharrezan batzuei egin behar izan diete aurre: herritarren osasun segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, garbitasunean zerbitzu gehigarriak ezartzea, gizarte politiken arloan sortutako beharrezan berriei erantzutea, herrietako komertzio eta zerbitzuei laguntzea... Alarma egoeraren ondorioz udal zerbitzu asko bertan behera uzteak ere galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Inbertsioak berrantolatzeaz gain, udalek diru sarreretan ere aldaketak jasango dituzte: batetik, tasa eta prezio publikoen bitartez lortzea aurreikusten zituzten sarrerak murriztuko dira; eta bestetik, foru finantza funtsaren bidez jaso beharko luketen diru kopurua ere asko murriztuko da. Udalek finantziazio egonkorra eta nahikoa behar dute.



TOLOSAKO
UDALA

Gipuzkoako Foru aldundiak erabaki zuen udalei 2020rako bideratzea aurreikusten zen foru funtsetik %20 murriztuko zitzaiela azken bi hiruhilekoetan. Baina 2020ko urriaren 15ean egindako Finantza Kontseiluan diru bilketa %13,3 jaitsiko zela adierazi zen.

Honez gain, foru funtsa hauen likidazioa negatiboa izanez gero, udalek 2021. urtean malgutasuna beharko dute hau ordaintzeko; 2008ko krisialdian Gipuzkoan posible izan zen legez eta Bizkaiko Foru Aldundiak berriki proposatu duen ildotik.

Bestetik, udalek dituzten erronkei aurre egiteko zorpetzeko aukera izan behar dute.

Beraz, Tolosako Udalbatzak honako hau adosten du:

- 1. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, azaroan egingo den foru funtsaren ordainketa 2020ko urriaren 15eko Finantza Kontseiluan informatutako aurreikuspenekin koherentzia burutu dadila. Hau da, azken hiruhilekoaren ordainketan aurreikusitakoaren % 13,3ko jaitsiera aplikatu dadila gehienez; eta era berean, aurreko hiruhilekoan egin ziren murrizketak (%20rainokoak) konpentsatu daitezela udalen aldeko saldoa ordainduz.*
- 2. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020ko foru funtsaren behin betiko likidazioa egiterakoan, Foru Aldundiaren aldeko saldoa egonez gero, udalek hurrengo 3 urteetan ordaindu ahal izateko aukera eman dezala eskatzea.*
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundiari, Udalen zorpetzeko aukera zabal dezala eskatzea, zorpetzeko ahalmena udalekin % 50ean elkarbanatuz.*
- 4. Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta EUDELi jakinaraziko zaie.*

EHBILDU taldeak erretiratu egin du bere mozioa eta bat egin du PSE-EE mozioarekin. Beraz, ez da bozkatu.

Ondoren, PSE-EE talde politikoak aurkeztu eta EHBILDUk bat egin duen mozioa irakurri dute.

Mozioak honela dio:

“MOZIOA, UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI ETA ZORPETZEARI BURUZKOA

COVID-19 koronabirusak mundu osoan eragindako osasun- eta ekonomia-krisiak pandemiak bereziki kaltetutako zerbitzuetan gastu handiagoa eragin du, bai eta zerga



TOLOSAKO
UDALA

itunduen bidezko diru-bilketa txikiagoa ere.

Udalek beren aurreikuspenak alde batera utzi dituzte eta beste lehentasun eta behar batzuei aurre egin behar izan diete, hala nola: herritarren osasun-segurtasuna bermatzeko neurriak hartu, garbiketa-zerbitzu gehigarriak ezarri, gizarte-politiken esparruan sortutako behar berriei erantzun, udal-merkataritza eta -zerbitzuak babestu...

Gainera, udalen zerbitzu asko bertan behera uzteak, alarma egoeraren ondorioz, galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Une honetan, koherenteak izan behar dugu deskribatutako egoera berriarekin, gastu eta diru-sarrera handienak arintzeko eta euskal ekonomiaren susperraldia eta dinamizazioa bultzatzeko.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, irailaren 30ean bilduta, 2020an % 3,5eko defizita onartu zuen euskal erakundeentzat, eta % 3koa 2021erako (% 2,2 Eusko Jaurlaritzarentzat eta % 0,8 aldundientzat). Akordio horretan, lehen aldiz, foru-aldundiei zorpetzeko gaitasun propioa aitortzen zaie.

Horrela, Ogasun Ministerioarekin uztailen itxitako akordioari (defizitaren % 2,6 hitzartu zen), foru aldundientzako berariazko % 0,9 gehitu zaio orain, eta % 3,5 euskal erakunde guztientzat 2020an.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuak adierazi du zorpetze-eragiketen kargurako finantzaketa handiagoa eta, ondorioz, epe luzeko zorra handitzea zentzuz onar daitekeela, Euskal Autonomia Erkidegoaren finantza- eta kaudimen-egoera kontuan hartuta, eta zor publikoaren maila autonomia-erkidego guztietako txikienen artean dagoela BPGd-ari dagokionez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen udalei % 20 murriztuko zitzaizela azken bi hiruhilekoetan 2020rako bideratuko zen foru funtsa. Baina 2020ko urriaren 15ean egindako Finantza Kontseiluan adierazi zen bilketa % 13,3 jaitsiko zela.

Euskal erakundeen interesen aldeko testuinguru horretan, inoiz baino beharrezkoagoa da Gipuzkoako udalak udal-aurrekontuen finantza-jarraitutasuna erraztuko duen akordio batean integratzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak zorpetzeko duen ahalmenaren bidez. Horrek balioko luke Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik (FOFIM) datozen diru-sarrerak ez murrizteko ekitaldi honetan eta hurrengoan, COVID-19k sortutako egungo krisiaren bi urte gogorrenetan. Udalek Aldundiarekin duten zorpetze-formula horren bidez, udalek itzuli egingo lukete 2022an eta 2023an itundutako zergengatik izandako diru-sarreraren murrizketari dagokion zatia. Bizkaiko eta Arabako foru erakundeek dagoeneko iragarri duten formula da, eta gure lurraldera zabaltzeko eskatzen dugu.



TOLOSAKO
UDALA

Horrela, datorren urteko udal aurrekontuen plangintza abiatuko litzateke, ziurtasun- eta egonkortasun-bermeekin, eta, zalantzarik gabe, gure hiriko herritarren onerako izango litzateke, egungo egoera ekonomiko eta sanitarioa gehien pairatzen ari diren gizarteko sektoreekiko konpromiso publikoak indartuz.

Horregatik, Tolosako Udalbatzak honako hau erabaki du:

- 1. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea azaroan egin beharreko Foru Funtsaren ordainketa Finantza Kontseiluan 2020ko urriaren 15ean informatutako aurreikuspenekin bat etorriz egin dadila.*
- 2. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, zorpetzeko duen gaitasuna kontuan hartuta, udalek, hala nahi badute, 2020rako FFFMren hasierako aurreikuspenetan dagokien guztizko zenbatekora arte eska dezatela. Udalek 2022an eta 2023an konpentsatuko dizkiote zenbateko horiek Foru Aldundiari.*
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, hala nahi duten udalekin batera, Itunaren Batzorde Mistoaren esparruan itundutako zenbatekoaren % 40 gutxienez zorpetzeko ahalmena izatea.”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aurkako botoak (8): Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Soroazabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe.

Aldeko botoak (8): Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, berdinketa egonik, **alkateak kalitatezko botoa** erabili du eta mozioa **ez dute onartu**.

Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, udalbatzak, aho batez onartu ondoren, honako gai hauek aztertu dituzte:



TOLOSAKO
UDALA

- **BERRESTEA 2020KO URRIAREN 27AN, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK HARTUTAKO AKORDIOA: TOLOSAKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SEKTOREETAN TOKIKO EKONOMIA INDARBERRITZEKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.**

TOKIKO GOBERNU BATZARREKO 2020KO URRIAREN 27KO ERABAKIA

COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoerak eragin negatiboa izan du hainbat sektoreren ekonomian eta enpleguaren biziraupenean: esate baterako, txikizkako lokal eta establezimendu askok euren jarduera eten edo murriztu egin behar izan du, eta jarduerari berrekitea lortu duten kasuetan, zailtasun handiak izaten ari dira lanean jarraitzeko.

Egoera konplexu horren aurrean, kontuan izan behar da txikizkako merkataritzak, ostalaritzak eta jatetxeek Tolosako udalerrian duten garrantzia estrategikoa, bai garapen sozioekonomikorako, bai enplegua sortzeko. Tolosa eskualdeko hiriburu izateaz gain, eskualdeko 10 biztanletik 4 bertan bizi da, eta, ondorioz, inguruko ekipamendu, zerbitzu eta saltoki gehienak biltzen dira. Horrela, Tolosa hiri-ekonomia dinamiko baten erakusle da eta datuek errealitate hori berresten dute: Eustat erakundearen arabera (2019), Tolosak 1.000 biztanleko 17,40 saltoki ditu, Gipuzkoak 11,32 eta Euskadik, berriz, 10,48.

Ondorioz, 2018. urteko datuaren arabera, Tolosa da merkataritza-dentsitate handieneko euskal udalerria: 1.000 biztanleko 23 saltoki ditu (Gipuzkoako batez bestekoa 14koa da). Tolosa, hortaz, 47.000 biztanle baino gehiago dituen eskualde baten hiriburua da, alegia, gune estrategiko bat.

Sektore horien garrantzia estrategikoz jabetuta, Udal honen nahia da Tolosako udalerrian kokatutako negozioen salmenten aldi baterako itxierak edo beherakada nabarmenak eragindako galera ekonomiko zuzenaren egoera arintzen laguntzea. Horretarako, Tolosako Udalak SUSPERTU TOLOSA GUZTION ARTEAN izeneko txoke plana jarri du abian; guztira, 32 neurri biltzen ditu. Neurri horien artean, ekonomia berrindartzera bideratutako hainbat lan lerro jasotzen dira, horien artean, honako hauek:

1. Merkataritza sektorera eta gainontzeko zerbitzuetara bideratutako bonu kanpaina.
2. Ostalaritza eta jatetxeetara bideratutako bonu kanpaina.
3. COVID-19ak sortutako krisi ekonomiko eta sozialak eragindako beren konturako langileei edo autonomoei eta mikroenpresei gastuetarako (alokairua, hipoteka, hornidura, e.a.) dirulaguntzak.
4. Autonomo eta mikroenpresentzako gastuetarako dirulaguntzak.
5. Autonomo eta ETEak egoera berrira egokitzeko inbertsioetarako dirulaguntzak.

Behin lehen lau lan-lerroak abian jarri ostean, azken lan-lerroari ekitea ezinbestekoa da. Izan ere, merkataritza eta ostalaritza sektoreek jarduerari berriro heldu diotenean, ikusi



TOLOSAKO
UDALA

da bizirauteko ere zailtasunak dituztela, osasun eta segurtasun neurriek baldintzatuta (edukiera kontrola, inbertsio eta garbiketa neurriak, e.a.). Hortaz, sektore horiek biziberritzeko laguntza jasotzeko premia handia dute, eta neurriak hartzea presazkoa da. Zehazki, jarduera ekonomikoarekin jarraitzeko inbertsio eta ekipamenduak erosteko, eta inbertsio horiek egiteko beharrezko diren ikerketak gauzatzeko.

Hain justu ere, aipatutako xede berberarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2020ko ekainaren 10ean (GAO, 108 zk.), argitaratu du *“COVID-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko programa”*, zeinaren bitartez Tolosako Udalari 70.707,55 €-ko dirulaguntza onartu dion (2020ko uztailaren 14ko ebazpena).

Gainera, kontuan izan behar da apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.25. artikuluan, udalerrian eskumen propio moduan hau jasotzen duela: *“Tokiko ekonomia- eta gizarte- garapena eta tokiko enplegu politikak edo planak”*. Bestalde, 2017ko apirilaren 25ean onartu zuen Udalbatzak Tolosako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Horretarako, Tolosako Udalak 120.707,55 euro bideratuko ditu 1100.771.01.430.00 (2020) aurrekontu-partidaren kargura. Bestalde, udal teknikariek aldeko txostenak igorri dituzte.

Kontutan izanda oinarri arautzaileak eta deialdia onartzeko dagoen premiatasuna eta beharrezkotasuna, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Onartzea Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzetarako oinarriak eta 2020ko deialdia, ondoren, Udalbatzak berretsi ditzan.

BIGARRENA.- Onartzea aipatutako dirulaguntza lerroa, 2020ko martxoaren 5ean onartua, 2020-2022 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartzea.

HIRUGARRENA.- Argitaratzea onartutako oinarriak eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta iragarki taulan.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azoka eta Enpleguaren Sustapeneko Sailari eta Kontuhartzaitzari.

ESKU39054848-3d6d-41a2-ad51-e49f367db049



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du berrestea 2020ko urriaren 27an, Tokiko Gobernu batzarrak hartutako akordioa: Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia.

• **MOZIOA: EUSKARALDIA 2020**

Mozioak honela dio:

“Euskaraldiak indar eta ilusio kolektibo berri bat piztu zuen orain dela bi urte, euskararen biziberritzearen esparruan. Euskal Herriko 225.000 lagunek hartu zuten ariketan. Tolosan, hain zuzen ere, 3.468 lagunek eman zuten izena, 2.868 ahobizik eta 628 belarriprestak, eta udalak ere babestu eta parte hartu zuen Euskaraldiaren lehen ariketa horretan.

Euskaraldiaren bigarren edizioaren atarian gaudela, Tolosako Udaleko talde politiko guztiok, udalaren zein herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugu berriz ere.

Eta ariguneena da Euskaraldiaren bigarren edizio honek dakarren berritasunik handiena. Belarriprest eta ahobiziei 15 egunez euren egunerokoan ariketa egin dezaten proposatzeaz gain, entitateok, (erakunde, merkataritza-ostalari, elkarte...) euskaraz mintzeko gai diren hiztun taldeak identifikatu dituzte: ariguneak. Horrela, taldean, hizkuntza-praktikak euskarara aldatzea edo finkatzea da helburua.

Udalari berari ere eredugarri izatea dagokio euskararen erabilera sustatzeko eginkizunean eta horregatik bigarren edizio honetan arigunea izango da udala euskara erabiltzeko gune babestua izan gaitezen. Horretarako barne-ariguneak zein kanpo ariguneak antolatu ditugu antolakuntza sailetan eta herritarrei begirako harrera guneetan, Udalak eredu izan behar baitu euskaraz egiten, GEHIAGO, GEHIAGOREKIN eta GEHIAGOTAN egin dezagun euskaraz.

Tolosa herrian, berriz, tipologia ezberdinetako 80 taldek izena eman dute: ikastetxeak, komertzioak, enpresak, elkarteak, kirol eta kultur taldeak... Guztira 374 arigune sortu



TOLOSAKO
UDALA

dituzte Tolosako entitateek eta horri esker guztira 1.664 pertsonak hartuko dute parte Euskaraldian, ariguneen bitartez.

Udaletik herritarrei ariketa sozial honetan parte hartzeko deia egiten zaie 2018ko datuak hobetu ditzagun.

Euskaraldia tresna berritzailea da, lankidetzan oinarritua, herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabileran urrats bat aurrera egitea helburu duena.

Udalaren hizkuntza politika indartu eta sakontzeko aukera paregabea ere ematen digu Euskaraldiak eta udalak aukera horri erantzun nahi dio euskararen aldeko mugimendu sozial horren arrakastarako bere aletxoa jarritz.

Horrenbestez, Tolosako Udalak honakoa adierazten du:

- Tolosako Udalbatzak **bat egiten du Euskaraldiarekin** eta ekimenaren sustatzaile izango da. **Erantzukizunez** eta **eredugarritasunez** jokatzeko konpromisoa hartzen du eta hamabost eguneko ariketa egingo du, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra.
- Ordezkarari politikoon **egiteko nagusia** izango da **ekimena zabaltzea**, Euskaraldiaren markoan eta **bereziki udal barrura begira**.
- Ekimen honetan ahalik eta ahobizi eta belarriprest gehien aktibatzeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.
- Udal egituraren, langile nahiz udal ordezkarien artean, kanpo eta barne **ariguneak** osatzeko, babesteko eta sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, hizkuntza ohiturak finkatu eta egonkortzeko asmoarekin.
- Udalak **neurriak hartuko** ditu **hizkuntza-praktika** horiek posible izan daitezen, praktika **horiei etorkizunean eutsi ahal izateko**.
- Tolosako Udalak, **udal barruan ez ezik udalerrian ere** ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- **Geuk ere euskaraz egingo dugu, inoiz baino gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan!**

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez



TOLOSAKO
UDALA

Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** EUSKARALDIA 2020 dela eta, EAJ-PNV, PSE-PSOE eta EHBILDU talde politikoek aurkeztutako mozioa

10.GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 20:50ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU39054848-3d0d-41a2-ad51-e49f367db049**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2020IPLE0009-akta/acta